

Baietz gurean!: lantegiek begi onez ikusi dute egitasmoa

- Eta ondorioz, lehen bisitak egiten hasita daude jada Buruntzaldeko Udalek horretarako kontratatutako hizkuntza aholkulariak. 10 langiletik gorako 30 enpresarekin harremanetan jarri, Baietz Gurean! egitasmoaren berri eman eta begi onez hartu dute eskaintza. Gogoratu helburu nagusia ahalik eta enpresa gehienek euskararen erabilera normalizatzeko bitartekoak abian jartzea dela. Horretarako, aholkularitza nahiz diru-laguntzak eskaini dituzte Buruntzaldeko 6 udalek.
- Harremanetan jarritako enpresa horietako batzuek jada abian dituzte euskara planak. Beraz, euren bidea egiten utzi eta interesa agertu duten enpresen diagnosia egingo dute orain aholkulariek, horretarako hitzorduak jarrita daude, eta, ondoren, hobekuntzarako proposamenak egingo dizkiete enpresa horiei. Proposamen horiek ontzat hartzen dituzten enpresek hitzarmena sinatuko dute Udalarekin, diru-laguntza jaso ahal izateko. Izango duzue egitasmoaren berri aurrerago ere. Orain animatu zuek ere eta ez utzi trenari ihes egiten!



Udaltop: erdaldunak euskarara eta euskara planetara nola erakarri?

- Helburua galdera horri erantzuna ematea izanda, 3 hausnarketa-saio eginak dituzte EMUN-eko teknikariek. Saio horien berri eman zuten bi teknikariek apirilko Udaltop-eko jardunaldietan. Horretaz gain, enpresa batean izandako esperientzia pilotuaren emaitzak ere azaldu zituzten (Gasteizen dagoen Electra Vitoria Koop.).
- Aipatu enpresaren %69 erdalduna da. Langileen hizkuntza-gaitasun desberdinak kontuan hartuta, 3 tailer antolatu zituzten, eta parte-hartzea oso handia izan zela nabarmendu zuten teknikariek. Atal eta organo guztietako kideek hartu zuten parte, eta balorazio oso positiboa egin zuten.
- Informazio gehiago [hemen](#)

Zarak ere Web-a euskaraz

- Munduko katerik handienetakoa den ZARA jantzi-dendak euskaratu egin du webgunea. Sartu eta Espainia klikatuz gero, euskarazko edukietara eramango zaitu, baldin eta nabigatzailea euskaraz baduzu.
- Zara dendak Galiziako Inditex enpresa handiaren jabetzakoak dira, eta egin duen hautu horrek adierazten du enpresetan hizkuntza-kudeaketak gero eta garrantzi handiagoa duela.
- Konprobatu nahi baduzu sakatu [hemen](#)

Lan Hitz: eskaera epea zabalik

- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2011n kudeatuko dituen programen diru-laguntzen deialdia aurkeztu du.
- Enpresek LanHitz eta IKT deialdiak baliatu ditzakete euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko lantokietan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan. Ekainaren 10era arteko epea izango da eskaerak egiteko.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Telefonoa ezin euskaraz erabili

- Epaia batek arrazoi eman dio telefono berria eskatu zuen erabiltzaileari. Aurreko telefonoa euskaraz erabiltzerik ez, eta Vodafone enpresari telefono berria eskatu zion.
- Abokatua gustura dago epaiarekin, lehen aldia delako euskaldunok eremu pribatuan ditugun eskubideak onartzen direna.»
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdineta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org